



Aurrera!

36.zk.

2009ko abendua

Informatika eta Telekomunikazioetako Teknologia Berriak jendarteratzeko aldizkaria

Bulego Teknologikoak argitaratua

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza

AURKIBIDEA

Open Government
2. or.

Puntu neutroak
Interneten
6.or.

Alboan:
Espedienteen
kudeaketa
(Euskadiko Aholku
Batzorde Juridikoa)
10. or.

Laburrak:
SARgune
Ezkutuko informazioa
eta metadatuak
12. or.

Teknologia berrietako edota Informazioaren Gizarteko guruek Administrazio Publikoarekin lotutako termino ugari erabili ohi dituzte: eAdministrazioa, Gobernua 2.0, Gobernua sarean... *Open Government* edo *Gobernu Irekia* da terminorik berriena. Lehen gaian, kontzeptu hori sakonduko dugu, besteak beste, jakiteko zer esanahi duen, nondik datorren eta zer dakarren berekin herritarrentzat nahiz funtzionarioentzat.

Nahiz eta Interneteko **Puntu Neutroak** berriak ez izan, gaur egun, oraindik, askok ez dakigu zer diren. Hori dela eta, eta Internet egunero erabiltzeko oso garrantzitsuak direnez, bigarren gaian azalduko dizuegu zer jatorri, ezaugarri eta bilakaera dituzten, besteak beste.

Askok duzue Gobernuan erabiltzen diren elkarlanerako inguruneen berri. Ingurune horiek guztiak SharePoint-en oinarrituta daude. Hala ere, ingurune horien aukera guztietatik apur batzuk baino ez ditugu erabiltzen. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak (**COJUA**), teknologia hori oinarritzat hartuta, espediente guztiak kudeatzeko aplikazio bat garatu du. Aplikazio berri horren ezaugarri teknikoak direla eta, ezaugarri garrantzitsuenen berri eman nahi dizuegu *“Alboan”-en* bidez.

Oraingoan, *“Laburrak”* atalean, **SARgune** aurkezten dizuegu. Egun gutxi barru, Eusko Jaurlaritzako Sare Korporatiboaren erabiltzaileak ohizkotasunez erabiltzen hasiko dira sistema hori. Izan ere, sistema horrek kontrolatuko ditu gure lanpostuan erabili ohi ditugun zerbitzuen edota aplikazioen sarbide guztiak. Azken erabiltzaileak atal honetan aipatuko ditugun abantailak izango ditu, sistema berri honi esker. Azkenik, labur-labur azalduko dizugu **metadatuak** zer arrisku dituzten —Interneten argitaratzen ditugun dokumentuetan sartuta egon ohi dira, ustekabeen askotan—.

P.D.: data hauetako tradizioari jarraiki...

Zorionak eta Urte Berri On!!!!



Open Government



Orain arte, *eAdministrazioa* (Administrazio elektronikoa) hitza adituek Administrazio Publikoari buruz jarduteko erabili izan duten azken terminoa da. Hala ere, gaur egun, beste termino bat erabiltzen hasi dira, Administrazio Publikoek hemendik aurrera jarraitu beharreko ildo definitu nahi duena: *Open Government* delakoa. Baina, zer esan nahi du termino horrek? Zer abantaila ditu herritarrentzat?



HIZTEGIA

¹ **FOI:** *Freedom of Information Act* edo FOIA delakoa

informazioa jasotzeko eskubidearen Estatu Batuetako legea da, eta organismo federalak behartzen ditu eskatzen duen edozeini beren jardueri buruzko informazioa ematera. Hori oso baliagarria da, batez ere kazetarientzat. Estatuak hamar egun balioduneko epea du informazio hori emateko, eta, eskaera onartzen ez badu, erabakia behar bezala arrazoitu behar du. Informazioa gordetzeko hainbat arrazoi daude, besteak beste: segurtasun nazionala arriskuan jartzea, merkataritza-sekretuak jakinaraztea eta informazioak herritarren bizitza pribatuari kalte egitea. FOIari esker, oso gai garrantzitsuei buruzko informazioa argitaratu ahal izan da, lehen sekretutzat hartzen zena, hala nola, Vietnamgo gerrari buruzko informazioa eta FBIren legez kontrako espioitza jardueri buruzkoa.

Open Government (*oGov*, edo Gobernu irekia) delakoak, funtsean, Administrazio Publikoak eta herritarrak erlazioatzeko modua definitzen du. *Open Government* horren ezaugarri nagusia da komunikazio- eta kontaktukanal zuzenak ezartzen dituela bi alderdien artean, Internetek gaur egun eskaintzen dituen baliabide berriei esker.

Ekimen honen helburua da herritarrekin etengabeko elkarriketa izatea, zer esaten duten entzutea, herritarren lehentasunetan oinarritutako erabakiak hartzea, eta, azkenik, zerbitzuak egitean, herritarren eta funtzionarioen arteko lankidetzaz erraztea.

Halaber, Gobernuak zer erabakitzen eta egiten duen **argi eta garbi** eta **agerian** jakinaraztea.



JATORRIA

Berez, *Open Government* kontzeptua mundu anglosaxoian sortu zen, eta zuzenean lotuta dago herritarrak **informazio publikoa eskuratzeko** duen askatasunarekin.



Beraz, jatorrizko adiera zuzenean lotuta zegoen **FOI**¹, informazio-askatasuna, kontzeptuarekin (*Freedom Of Information*). Hala ere, pixkanaka-pixkanaka *Open Government* delakoaren ideiak gero eta adiera gehiago eskuratu ditu, eta, gaur egun, edozein herritarri bizitza politikoan parte hartzeko aukera ematen dion baliabidea da. Aditu askok gobernatzeko modu berri horri "**elkarlaneko demokrazia**" esaten diote. Azken finean, horrek guztiak berekin dakar gobernuaren lan egiteko eta erabakiak hartzeko modua aldatzea.

Adituen arabera, gobernu-mota hori atzeratuta dago Espainian, gobernuaren ikuspegia zentralizatuegia, bertikalegia eta opakoegia baita.

Administrazio bat *oGov* bihurtzea lortzeko, administrazioak zenbait alderdi landu behar ditu:

- **Kultura-aldaketa:** Administrazioaren helburua da herritarrentzat baliagarria izatea, eta Administrazioak berak izan behar du kudeaketaren muina; hau da, gauzak egiteko modua aldatu behar da.

- **Prozesuak aldatzea:** Administrazio Publikoaren prozesuak ez dira diseinatu herritarrentzat baliagarriak izateko, eta, horrenbestez, egungo prozesu guztiak berriz definitu behar dira, herritarrentzat baliagarriak izan daitezten.

- **Antolaketa aldatzea:** ezinbestekoa da administrazioak eta lanpostuak berriz antolatzea, proiektuetara eta emaitzak lortzera zuzendutako sareko eredu baten mendean jarduteko, eta egungo hierarkia-ereduak baztertzeko.

- **Harreman-moduak aldatzea:** "erakusmahaitik" "mahai-ingurura" pasatzea, posta ziurtatutik online komunikaziora, eta presentzia fisikotik birtualera.



POLITIKA 2.0 vs. GOBERNUA 2.0?

Hasieran, aditu askok Politika 2.0 terminoa erabiltzen zuten, blogetan eta gizarte-sareetan erabiltzen zen neurrian. Azkenaldian, ordea, Barack Obamak AEBetako hauteskundeak irabazi ondoren, Gobernu 2.0 terminoa nagusitzen ari da. Izan ere, dirudienez, Politika 2.0 terminoa hauteskunderi baino ez dagokie, eta Gobernu 2.0 terminoak, aldiz, zenbait balioaren erabilera sinbolizatzen du, hala nola erakunde-lanean aritzean lankidetzaz eta gardentasuna erabiltzean. Gobernu 2.0 kontzeptu zabalagoa dela dirudi, herritarrak gobernuaren lanetan inplikatzeko helburua baitu. Politika 2.0 garai jakin batekoa da, eta

Gobernua 2.0 behin betikoa, eta, horrenbestez, ez da iraungitzen.

Duela gutxi, **Europako Batzordeak** haren garrantzia nabarmendu zuen; herritarren eta gobernuaren arteko harremana hobetzeko aukera ematen duen Internetekin lotutako tresna multzo bat zela esan zuen. *“Administrazioak herritarrentzat gero eta gardenagoak eta argiagoak izateko eskaera handitzen ari da, bai zerbitzuak emateari eta bai politika publikoak diseinatzeari dagokienez. Eskaera hori behar bezala kudeatzen bada, lagungarria izan daiteke zerbitzu publikoen kostuak hobetzeko eta murrizteko, bai eta administrazio publikoarekiko konfiantza areagotzeko ere”*.²

IREKIA: EUSKO JAURLARITZAREN OPEN GOVERNMENT

Administrazio Publikoaren arazorik ohikoenetako bat da gizartetik urrun dagoela. Herritarren eta administrazioaren arteko harremana baztertuta egon da, eta lau urtean behin boto-eskubidea erabiltzera mugatu da. Hala ere, herritarrak ere izango du zer esan gobernuari hurrengo hauteskundeak baino lehen —gutxi gorabehera 1.460 egun igaroko dira tarte horretan—. Hala sortzen da **open government** delakoa, harremanetan jartzeko beste modu bat. **Open government**-ek zuzeneko komunikazio- eta kontaktu-kanalak ezartzen ditu herritarren eta Administrazioaren artean.



«Jatorrizko ideia horretan oinarritzen da Euskadi **Irekiaren** Gobernu Irekiaren filosofia. Herritarrak Euskadiko Administrazioa gerturatzean datza, pertsonen Gobernuaren ekintzak kontrolatzeko, eta ekintza horietan parte hartzeko eta erabakiak hartzeko aukera emanaz, pertsona guztiak Gobernuaren eta haren politiken parte izan daitezten. Azken helburua da demokraziaren jatorrizko ideia errealitate bihurtzea: **guztien artean gobernatzea**. Rolak aldatu egin dira, eta herritarrak utzi egin dio eragile pasiboa eta soilik mezu-hartzailea izateari, eragile aktiboaren itxura hartzeko. Eragiten dioten eta axola dioten erabakietan, eta

eraginkortasunez, erraz eta etengabe parte har dezakeen erabakietan inplikaturako herritar bihurtzen ari da.

Hala, pertsonak Eusko Jaurlaritzaren aholkulari bihurtzen dira, eta hitza dute. Batez ere entzun egiten zaie, eta baita aintzat hartu ere. Horrenbestez, pertsona bakoitzak bete ditzake oposizioaren funtzioak; hau da, kritika konstruktiboa egin dezake, eta gobernua kontrolatzeko funtzioak bete.

Irekia Eusko Jaurlaritzaren proiektu global bat da, Patxi López Lehendakariak bultzatu duena. Lehendakariak Euskal Administrazio Publikoaren barruan iraultza kultural horren buru izan nahi du, administrazioa gardenagoa izan dadin eta herritarren iritzia benetan garrantzitsuak izan daitezten. Halaber, Administrazioaren barne-iraultza ere bada. Administrazioaren barruan lan egiteko erak, eta sailen artean eta gizartearekin harremanak izateko moduak aldatu egingo dira, berehala, pixkanaka eta etengabe. Hori dela eta, bereziki beharrezkoa da Administrazioko kide guztiek parte hartzea, gizartearekiko gardentasuna eraginkortasunez lortzeko. Proiektu hori onuragarria izango da administrazio publikoarentzat, herritarrek asko lagundu baitiezagukete pertsonen aditu eta erantzunda, eta haien ekarpenak gure eguneroko lanari gehituta. Gizarteari begira gobernatzean datza, eta gizartea da kontuan gehien hartu behar dugun elementua.

*Aldaketa guztiek dute arriskua. Berria denarekiko erreparoa eta zenbait ziurgabetasun izatea ohikoa da, baina **Gobernu Irekiaren eta Sareko Komunikazioaren zuzendaritzak** ziur daki herritarrei administrazioaren ateak irekitzeak aparteko balio berezia ekarriko duela. Gaur egun, ezin da neurtu zenbateko balioa izango duen, baina, denboraren joanean, jende guztiak balioetsi ahal izango du dagokion neurrian. Denok elkarrekin ikasiko dugu, herritarren eskutik, denen aurrean eta engainurik gabe.»*

IREKIA PROIEKTUAREN 3 OINARRIAK

Irekia proiektuak 3 funtsezko oinarri ditu.

Lehena **gardentasuna** da. Gobernuak herritarren eskura jarriko ditu, denbora errealean, bere jarduerari, planei eta asmoei buruzko informazioak eta datuak. Bigarren oinarria **parte-hartzea** da. Gobernuak onartuko dituen lege, dekretu, neurri edo beste mota batzuetako erabakiak eztabaidatu, balioetsi, kritikatu eta



HIZTEGIA

² **“Cluetrain manifestua”**: askok web 2.0 delakoaren Bibliatza jotzen dute manifestu hori. 2000. urtean argitaratu zen. Hala ere, manifestu horren mezua indarrean egoteaz gain, urteen poderioz eta Interneten bilakaeraren bidez egiaztatu da mezuaren planteamenduak baliagarriak direla. **95 tesitan** egituratuta dago manifestua. Horietako batek dio kontsumitzaileak jada ez daudela enpresen zain, enpresek beren produktuen erabileren eta onuren berri eman diezaieten publizitatearen bidez. Kontsumitzaileek beren esperientzien eta iritzien berri ematen diete elkarri Interneten. Hori dela eta, enpresek elkarrizketa horietan parte hartzeko moduak bilatu behar dituzte, kontsumitzaileekin pertsonalki eta zuzenean komunikatzeko. Gaur egun, printzipio horiek guztiak Administrazio Publikoari eta herritarrei aplikatu dakizkieke.

www.cluetrain.com





HIZTEGIA

³ "Administraciones en Red" bloga, <http://eadminblog.net>, 2005. urtean jarri zen abian, eta pertsona hauen ekimenari esker sortu zen, besteak beste: Iñaki Ortiz (egungo Berrikuntzako eta Administrazio Elektronikoko zuzendaria) eta Alberto Ortiz de Zárate (egungo Herriarrari Arreta Emateko Zerbitzuaren zuzendaria).

Asmoa da blog hori hainbat arlotatik (administratibotik, unibertsitatetik eta enpresetatik) datozen pertsonen eta Administrazio Publikoak sarean jartzeko asmoa dutenen elkargune bihurtzea.

Blog horretan, Administrazio Digitalarekin lotutako gaiak buruz hitz egiten da, hala nola Interneteko presentzia-ereduez, herritarrek parte hartzeko mekanismoak eta zerbitzuaren izapidetze telematikoak, eta diziplina anitzeko ikuspuntu batetik lantzen dira: antolakuntzako, teknologikoa edota juridikoa.

<http://eadminblog.net/>



osatu ahal izango dira (egin baino lehen ere bai), pertsonen iritzien bidez. Gobernuak sustatutako neurriak egin ahal izango zaizkie ekarpenak, baina herritarrek ere beren proposamenak egin ahal izango ditu, eta denen artean eztabaidatu eta aztertuko dira. Eta filosofia horren hirugarren elementua herritarren **elkarlana** da: pertsona horiek ere kazetariak izatea eta gai horiek beren gizarte-sareetan hedatzea. *Ziberkazetaritza*. Izan ere, proposamenetan parte hartzen badute berenak balira bezala hartuko dituzte, eta aberasgarria da proposamen horiek askatasunez hedatu ahal izatea.



Filosofia hori egia bihurtzeko, **Gobernu Irekiaren eta Sareko Komunikazioaren Zuzendaritzak** www.irekia.euskadi.net web-orria jarriko du abian, urtarriletik aurrera.

Web-orri berri hori euskadi.net web-orriaren egitura integratuko da, eta bi gunetan banatua egongo da: bata, oro har herritarrentzat diseinatua; eta bestea, espezifikoa, komunikabideetako langileentzat.

Multimedia-agentzia sektore profesionalari zuzenduta egongo da, eta datuak, dokumentuak, audioak, bideoak eta beharrezko material guztia emango ditu kalitate onean, komunikabideek eta blog-kazetaritzak beren lana egin dezaten. Ekimen horren helburua da Eusko

Jaurlaritzan sortzen den informazioa ahal den azkarren ematea, bai eta beharrezko multimedia-materiala ere, material hori erabiliz informazioa osatzeko, segurtasun-, fidagarritasun- eta berehalakotasun-baldintza onenetan.

Edozein pertsonak erabili ahal izango du Irekia. Irekian, Agentziako ikus-entzunezko material bera egongo da, baina materialaren formatuak pisu txikiagoa izango du, bizkortasuna areagotzeko. Halaber, Irekian iruzkinak egin daitezke, eta Gobernuaren jarduerarekin eta proposamenekin lotutako informazioei buruzko balorazioak eta iritziak eman.

Horrez gainera, Irekian informazioa emateaz gain, herritarrei Gobernuaren ekimen politikoen berri emateko gune bat prestatuko da. Gune horretan, jendeak bere iruzkinak utzi eta ekarpenak egin ahal izango dituzte Gobernuaren Sailek herritarren iritzia lortzeko herritarrei jakinarazi nahi dizkieten lege, dekretu, neurri edo ekimenei buruz. Horri guztiari Elkarlana esaten zaio.

«Helburua da herritarrentzat interesgarriak izan daitezkeen jarduera mota guztiek tokia izatea, kontuan izan gabe berriaren beraren hierarkia eta espazioa, Irekian guztiok sartzen baikara. Ez dugu hautatu edo murriztu behar, komunikabideek ez bezala. Mota guztietako interesak daude, pertsonak adina.»

Baina informazio kopuru handi hori dela eta, gaurkotasuna azkar-azkar

KZgunea 2.0

Urriaren 8an eta 9an, Telezentro-sareen Elkartearen IX. Topaketa egin zen Gasteizen.

Egun, telezentroak herritarren eta administrazioaren arteko bitarteko zuzena dira.

Espainiako biztanleen % 20k, gutxi gorabehera, gizarte-sareak erabiltzen ditu gaur egun, eta Europako bigarren sare parte-hartzaileenak dira.

Urriko hitzordu hartan, herrialde osoko telezentroetako kideak eta ordezkari publikoak bildu ziren, Telezentroek Administrazio elektronikoa eta Open Government delakoa herritarrei gerturatzen zein zeregin duten aztertzeko.

Web 2.0-ren barruan, milaka elkarrizketa daude, eta jendeak interesatzen zaizkion



gai publikoei buruz bere iritzia eman eta proposamenak egiten ditu, eta autoantolatatu egiten da. "Administrazioak herritarri jarraitzen dio, itzalak gorputzari jarraitzen dion bezala, baina galdera da

zer distantziatarra jarraitzen dion"³ esaten zuen Alberto Ortiz de Záratek, Herriarrari Arreta Emateko Zerbitzuaren zuzendariak. Internetek komunikatzeko eta parte hartzeko beste modu batzuk eskaintzen dizkio herritarri, eta gobernuek ikasi behar dute elkarrizketa horiek entzuten eta integratzen. Halaber, onartu behar dute biztanleria zerbitzu publikoen "bezero" soiltzat hartzen duten gobernuen ereduak ez direla baliagarriak.

kontsumitzen da, eta garrantzitsua da ahal den material gehiena berriz erabiltzea eta Euskadi.net webgunean edo Sail bakoitzaren tresnetan sakontzea, bai eta gizarte-sare guztien bizikide izatea ere.»

Gobernuaren proiektuez landa, herritarrek beren proposamenak egin ahal izango dituzte gai interesgarriari buruz. «Zure proposamenak -Gure proposamenak» izeneko atal hori gizarte-sare batean egongo da, Berrikuntzaren

Euskal Komunitatean. Tresna horri esker, ideiei eta proiektuei buruzko eztabaida sortuko da herritarren eta Gobernuaren artean.

Sailek ekarpen batzuk zein besteak analizatuko dituzte, eta, balioespena egin ondoren, zer erantzun egoki eman behar duten aztertuko dute. Gobernuak aprobeitza ditzakeen ideiak gobernuaren legeak, neurriak eta dekretuak prestatu, diseinatu eta egiten dituzten lantaldeen material bihurtuko dira. Eta helburua da noizbait herritarren ekarpen horiek Gobernuaren legeen, dekretuen edo ekimenen zati bihurtzea.



sortuko den eztabaida hori, eta arauak edo legeak egiteko eztabaidetan eta prozesuetan sartuko du. **Entzute aktiboari** buruz ari gara, garatzen joango den tresna bati buruz. Izan ere, Gobernuarentzat garrantzitsua da gizarteak zer dioen entzutea, edozein tokitatik esaten duela ere. Era berean, argi dago gizarte-sareetan eztabaida ugari sortzen direla, Gobernuaren jarduerarentzat garrantzitsuak izan daitezkeenak, baina baita beste blog, web-orri, foro eta bitartekoetan ere, Gobernutik kanpo. Pertsonak beren iritzia emateko eta beren kezak eta beharrak jakinarazteko erabiltzen dituzten foro guztiei adi egotean datza.



HIZTEGIA

4 Creative Commons: Creative Commons edo CC lizentziak **Free Software Foundation** erakundearen GPL (General Public License) lizentzian oinarritzen dira, baina ez dira software-lizentziamendu mota bat. Ideia nagusia da **edukiak banatzeko** eta erabiltzeko legezko modelo bat ahalbidetzea, horretarako aukera ematen duten tresna informatikoez baliatuta.

Creative Commons lizentzia multzo bat bada, eta lizentzia bakoitzak zenbait printzipio ditu (hala nola, jatorrizko egileak eskubidea izango du bere lana aipatzeko, erreproduzitzeko, eratorritako lanak sortzeko eta publikoki eskaintzeko askatasuna emateko), bai eta zenbait muga ere (hala nola merkatari-tzako erabiltzen ez uztea eta jatorrizko egile-tasuna errespetatzea).

Berez ingelesez idatzi zituzten arren, lizentziak egokitu egin dira munduko beste herrialde batzuetako legetara. Gaztelaniara eta **euskarara** ere itzuli dira, besteak beste, *Creative Commons International*

“Web 2.0-ren barruan, milaka elkarrizketa daude eta jendeak interesatzen zaizkion gai publikoei buruz bere iritzia eman eta proposamenak egiten ditu, eta autoantolatu egiten da .”

SOFTWARE LIBREA

«Patxi Lópezen Gobernuak software librearen alde egin duen apustua ukaezina da. Irekia proiektua osoa software libreko programak erabiliz diseinatu da. Programa horien bidez, orri horietan argitaratutako guztia askatasun osoz erabili eta bana daiteke, eta dohainik, gainera. **Creative Commons by** ⁴ lizentzia hautatu da printzipio horri legezko estaldura emateko. Beraz, herritarrek gune horretan sortzen den informazio guztia gertu izango dute, eta erabili, kopiatu edo banatzeko aukera izango dute, mugarik eta kosturik gabe.»

GIZARTE-SAREAK

Gobernuaren jarduerari buruzko eztabaidak maiz gertatuko dira gizarte-sareetan ere. Sare horiei ere jakinaraziko zaie zer egiten duen Gobernuak. Izan ere, gizarte-sareetan jakinaraziko dira Gobernuak sortutako informazioa, nahiz sustatutako neurriak edo legeak eta pertsonen iritzia edo ekarpenak, pertsona guztiek ez baitute eskuratuko informazioa Irekiaren bidez soilik.

Gobernuak ere bilduko du gizarte-sareetan

BIDAIA HASI DA

«Jesu Kristo baino 500 urte lehenago esan zen bezala, “bidaiarik luzeena lehen urratsa emanez hasten da”. Zalantzarik gabe, Irekiak urtarrilean hasiko duen bidaia prozesu luzea izango da, eta ordura arte izan ez den kultura aldatzea eragingo du Euskadiko herritarren eta Administrazioaren arteko harremanetan. Eusko Jaurlaritzarentzat benetako erronka izango da, eta kide guztiok egin ditzakegu ekarpenak, eta ekimenarekin bat egin, gardentasuna eta parte-hartzea ez daitezen izan lortu beharreko helburua, baizik eta Administrazio Publikoaren funtzionamenduaren berezko ezaugarriak. Lehen urratsa da sareak eskaintzen dizkigun tresnen eta erraztasunen mende etengabe aldatzen eta bilakatzen ari den proiektu honetan aurrera egiteko.» □

Puntu neutroak Interneten



Internet ez da entitate bakarra, sareen sare bat da. Sareak elkarren artean jarduten eta komunikatzen dira, protokolo bera erabiltzen baitute (TCP/IP), eta trafiko-maila handia dute. Gure nabigazioa arintzen eta hobetzen duten elementuetako batzuk dira puntu neutroak. Zer diren eta nola jarduten diren azaltzen saiatuko gara.



HIZTEGIA

⁵ Backbone

(bizkarrezurra): Interneteko enbor-konexio nagusiei buruzkoa da termino hori (azpistema bertikala). Interkonektatutako bideratzaile ugariak (*router*, sareen interkonexiorako hardware-gailu bat da, 3. geruzan, sare-mailan, jarduten dena), publikoek nahiz pribatuak, osatzen dute *backbone*.

⁶ **ISPak**, *Internet Service Providers*: Internet-zerbitzuen hornitzaileak. Enpresak dira, eta haien negozioa da bezeroak Internetera eta Internetek eskaintzen dituen zerbitzuetara konektatzea. Konpainia hauek, esaterako, Internet-zerbitzuen hornitzaileak dira: Telefónica, Euskaltel, Arrakis, Ono, Tele2, Ya.com eta Jazztel.

Duela urte batzuk, lehen mailako hornitzaile esaten zaienek kudeatzen zuten Interneteko trafiko gehiena. Hornitzaile horiek garraio-azpiegituraren (*backbone*⁵) hornidura-merkatua kontrolatzen zuten. Hona hemen gertatu ohi zenaren adibide argi bat: erabiltzaile batek fisikoki gertu zegoen beste erabiltzaile bati mezu elektronikoa bat bidaltzen bazion, eta biek ez bazuten Interneteko zerbitzu-hornitzaile bera (ISP⁶, operadore ere esango diegu hornitzaile horiei), mezua ia mundu erdian zehar “ibil” zitekeen, hartzailearengana iritsi baino lehen.

“Lehen mailako hornitzaileen arteko loturek errentagarritasun propioko irizpideari jarraitzen diote, edo, gehienez ere, beren bezeroentzako zerbitzuaren kalitate-irizpideari. Puntu neutroak hornitzaileen arteko lankidetzaren adibiderik argiena dira.”

Modelo horren alde txarrak bistakoak ziren: zerbitzu garestiak eta motelak. Hori dela eta, Puntu Neutro esaten diegunak sortu ziren. Funtsean, zerbitzu jakin batera sartzeko egin beharreko “saltoen kopurua” murriztean datza. Hala, ez dago arriskurik zerbitzura sartzeari zaila izateko edo mezua bere helmugara ez iristeko.

DEFINIZIOA ETA HELBURUAK

Puntu neutroei **Trafikoa Trukatzeako Puntu** (IXP edo IX, *Internet eXchange Points*), **Interneten Trukatzeako Puntu** (*Exchange Points*), **Borondatezko Interkonexiorako Puntu** (*IPP*, *Internet Peering Points*) edo **Sareratzeko Puntu** (NAP, *Network Access Points*) ere esaten zaie, eta Interneten egungo azpiegituraren funtsezko elementuak dira.

Labur-labur esanda, puntu neutro bat sarearen azpiegitura fisiko bat da, eta entitate independente bati dagokio azpiegitura hori kudeatzea. Puntu horien helburua da sistema autonomoen artean Interneteko trafiko-trukaketa erraztea, baina baldintza bat bete behar da: gutxienez hiru sistemak egon behar dute konektatuta. Halaber, direktiba argiak eta publikoak izan behar dituzte, beste batzuei azpiegiturara atxikitzeo aukera emango dietenak.

Puntu horiek zenbait maila dituzte: tokikoa, eskualdekoa, nazionala... Hala, Interneteko trafikoa maila jakin batean kontzentratzen da, eta abiadura handiagoa lortzen da. Adibidez: hiriarren eskualdeko mailan nodoren bat badago, hiri horretako biztanleak izango dira onuradunak, operadoreen arteko konexioak tokiko moduan egingo baitira. Horren ondorioz, abiadura handitu egingo da Interneteko paketeen trafikoari dagokionez, trafikoak ez baitu eremu horretatik atera behar. Baldintza bat baino ez du: operadoreak nodo neutral bati asoziatuta egotea.

Helburua da eremu geografiko bereko edo tokian tokiko eremu bereko hornitzaileen arteko trafikoa puntu neutroaren (komunikazio-nodoa) bidez bideratzea, hala, kanpora ez ateratzeko eta sare-kopuru handi batean zehar ez ibiltzeko. Hau da, datuak zuzenean trukatzeari, informazioa azkar eta zuzenean ibiltzeko, eta, ahal bada, kosturik gabe.


IXP-AK EZARTZEA

Oro har, puntu neutro horiek ordenarik gabe ezarri dira, 1990eko hamarkadatik.

Gaur egun, operadore batek aukera bat baino gehiago ditu eremu bat Internetera konektatzeko. Aukera bat da banda-zabalera puntu neutrotik konektatu beharreko eremura eramatea. Horretarako, beste operadore batzuek

aurretik egindako instalazioak erabil daitezke eta haien zerbitzuak alokatu.

Puntu Neutroa (IXP)



IXPak operatzeko modeloak lau kategoriatan sailkatzen dira:

- Irabazi-asmorik gabeko zerbitzu-hornitzaileen industria-elkarteak
- Hornitzaileari dagokionez irabazi-asmoa duten merkataritza-konpainiak
- Unibertsitateak eta erakunde instituzionalak
- Sareen elkarte informalak

Esan daiteke irabazi-asmorik gabeko erakundeek sortu zituztela Europako komunikazio-nodo gehienak, eta nodo horien helburua dela operadoreen arteko komunikazio-arazoak konpontzea. Hori dela eta, sarritan, Administrazio Publikoek sortu eta sustatu dituzte nodo horiek. Aitzitik, Estatu Batuetan IXP komertzialak dira nagusi, baina ez dute lehiazten ISP delakoekin azken erabiltzaileen zerbitzu-horniduran.

Lehen nodo horiek irabazi-asmorik ez dutenez, bazkideek kuota bat baino ez dute ordaintzen, nodoen mantentze-lanak egiteko eta instalazioak hobetzeko. Izan ere, bazkide horietako askok langile gutxi dituzte. IXP batek sortzen dituen eragiketa-gastuak murrizteko, lehendik dauden datuetarako instalazioetan ostata daitezke.

Instalatu ondoren, beste zerbitzu-mota batzuk jartzeko gune bihurtzen dira. Zerbitzu horiek banda-zabaleraren eskakizunak murrizten dituzte, eta, hala, abiadura eta tokiko erabiltzaileen Interneterako sarbidearen fidagarritasuna hobetzen dira. Hauek dira zerbitzu horietako batzuk, besteak beste:

- Domeinu-izenen zerbitzariak
- Erro-zerbitzarien ispiluak
- Denbora-zerbitzariak
- Web-cacheak
- Erloju atomikoak
- Berri-taldearen zerbitzariak

Horrez gainera, zerbitzuak ere jar daitezke sare-operadoreentzat, hala nola trafiko-neurketak eta ispilu bidezkoak (*looking glass*⁷).



SAREEN INTERKONEXIOA

Interneteko sarbidearen edo zerbitzuaren tokiko hornitzaile batek Interneteko lehen mailako hornitzaile batekin kontratatuta lan egiten du. Horrenbestez, tokiko hornitzailea munduko sare guztietako bideetan sar daiteke; hau da, Interneteko edozein zerbitzutara sar daiteke, edozein tokitan egonda ere. Hasiera batean abantaila dirudiena eragozpen bihurtu daiteke, sarbide edo zerbitzu hori fisikoki urrun baldin

Ohiko galderak puntu neutro bat sortzeko garaian

Puntu neutro bat instalatzeko lehen pausoa da zer premia dagoen zehaztea. Horretarako, hiru parametrotan oinarritzen da:

- ✓ Hornitzaileen kopurua kalkulatzea (gutxienez hiru)
- ✓ Zenbat trafiko trukatu den
- ✓ Konexioaren kostua

Galdera hauek egin behar dira:

- Puntu neutralak langile iraunkorrak izango ditu edo boluntarioek operatuko dute?
- Irabazi-asmoak dituen erakundea edo

irabazi-asmorik gabekoa izango da?

- Kideen jabetza kooperatiboa izango da erabat, edo kanpoko jabeak izango ditu?
- Non ostatatuko da puntu neutroa?
- Kostuak berreskuratzeko zer metodo erabiliko da?

Sare bat puntu neutro batera konektatu ahal izateko, operadoreak edo hornitzaileak entitate legal ezagun bat izan behar du.

Sareak puntu neutro batera konektatzen direnean, **Interkonektio Aldeaniztunerako Hitzarmen** (MLPA) bat egon ohi da, puntu horren politika arautzen duena.



HIZTEGIA

⁷ Looking glass

(ispilua): aplikazio bat da, beste sare batzuetako administrazioaleei aukera ematen diena sarearen beste toki batean "bideen" egoera ikusteko.



HIZTEGIA

⁸ **Peering**, pareen artean: administratiboki independenteak diren Interneteko sareen borondatezko interkonezioa, sare bakoitzeko bezeroen artean trafikoa trukatzeko.

⁹ **Backhaul**, itzulera-sarea: abiadura txikiko, ertaineko edo handiko konexioa, informazioa ibilarazten duten telekomunikazio-ekipoak konektatzen dituen.

¹⁰ **Latentzia**, atzerapena: komunikazio-sare bateko denbora-atzerapenen batura da. Sarean paketeak (informazioa transmititzeko unitateak dira) hedatzen eta transmititzen izandako atzerapenek eragiten dituzte atzerapen horiek guztiak. Latentzia gutxi behar duten zerbitzuak daude, hala nola, Sare Birtual Pribatuak (VPN, *Virtual Private Network*), irudien eta soinuaren fluxu jarraitua (multimedia *streaming*) eta VoIP protokoloa (*Voice over Internet Protocol*).

badago.

Eragozpen hori murrizteko sortzen dira puntu neutroak. Puntu neutroek aukera ematen diete Interneteko tokiko hornitzaileei elkarren artean




“IXP lokalak instalatuz eragiketa-kostuak murrizteak Interneterako sarbide-prezioak jaisten ditu azken erabiltzailearentzat, eta, horrez gainera, zerbitzuetan eta tokiko webgunetan sartzeko erantzundebora hobek ematen ditu.”

konektatzeko, *peering*⁸ delakoaren bidez. Hala, bezeroen trafikoa hornitzaile batetik beste hornitzaile batera atzitzen da, lehen mailako hornitzaileetara jo gabe —lehen mailako hornitzaileei kontratatzen zaie Interneteko sarbidea (*peering* akordioak)—; hau da, **sareen interkonezioa** egiten da. Trukatzeke Puntu baten bertsiorik soilena da bi zerbitzu-hornitzailearen arteko konexio zuzena egitea Interneten. Eremu berean bi hornitzailek baino gehiagok operatzen dutenean, logikoagoa da operadore independente bat inplementatzea hornitzaile-pareen artean konexioak egitea baino. Tokiko sareek trukatzeko dute trafikoa operadore independente horietan.

ZERGATIK INPLEMENTATZEN DIRA?

Puntu neutroak arrazoi hauengatik inplementatzen dira:

- ✓ Banda-zabaleraren kontsumoa handitzen ari da
- ✓ Nazioarteko loturen gainkarga dago
- ✓ Ez dago konektibitateko operadoreen artean
- ✓ Garraio-kostuak (*backhaul*⁹) kostu bat



eragiten diete operadoreei

- ✓ Webean oinarritutako zerbitzuak ugaritzen ari dira
- ✓ Telefonía mugikorrarekin lotutako datu-zerbitzuak areagotzen ari dira
- ✓ Interneteko trafikoa geografikoki mugatuta dago

PUNTU NEUTRO BATI ELKARTZEAK ZER ONURA DAKARTZA?

Onura ugari daude:

- ✓ Kostuak murrizten dira eta latentzia¹⁰ eta banda-zabalera hobetzen dira (eta, hala, saltoen kopurua murrizten da); hau da
- ✓ Zerbitzuaren kalitatea hobetzen da
- ✓ Sareko kostuetan aurrezten da
- ✓ Administrazio elektronikoa sustatzen da argi eta garbi
- ✓ Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien sektorea bultzatzen da
- ✓ Zenbat eta ISP gehiago konektatu, orduan eta balio handiagoa eskaini ahal izango die ISP bakoitzak bere bezeroei
- ✓ Hornitzaileen arteko lankidetzak sustatzen da, eta prezioen lehia handiagoa eragin
- ✓ Abiadura handiagoak lor daitezke nazioarteko konexioenak baino

Argi dago eremu jakin batean Interneterako interkonezio-puntu ugari izateak hauek dakartzala berekin: batetik, dagoen lehia dela eta, nodo horiek balio erantsia izatea ez da zentzuzkoa; eta, bestetik, sarbide-hornitzaileentzat garestia da denetara konektatzea, eta hori desabantaila bat da.

PUNTU NEUTROEN ADIBIDEAK

1997ko maiatzean, ESpanix puntu neutroaren, estatuko IXP zaharrenetako baten, eraketa-akta sortu zen, eta urte hartako urrian, puntu hori Banestoren Datuak Prozesatzeko Zentroan ostatatzeko erabakia hartu zen, zerbitzu-kontratu baten bidez. Gaur egun, zentro horretan jarraitzen du; 100 m²-ko areto bat betetzen du, eta gutxi batzuek baino ezin dute sartu hara.

Gure esparru gertukoenean, esan dezakegu EHUK, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Interneteko hornitzaileei, eta hezkuntzarekin eta

Ikerketarekin eta Garapenarekin (I+G) lotutako erakundeen korporazio-sareei zuzendutako zerbitzu bat eskaintzen duela, **EuskoNIX** izenekoa. Zerbitzu hori 2002. urtean sortu zen. IXP hori EHUren Leioako campuseko instalazioetan dago (ikus informazio gehiago: <http://www.euskonix.com>).

Katalunian Interneteko beste puntu neutro bat dago, **CATNIX** izenekoa. IXP horren ekipoak CESCaren (CEntro de Supercomputación de Cataluña zentroa) instalazioetan daude, eta 1999ko ekainetik funtzionatzen du. IXP horrek datu-kommutazioaren zerbitzuak eskaintzen ditu hamalau operadoreen eta ISPen artean, bai eta Kataluniako ikerketa- eta unibertsitate-komunitatea konektatzen duen abiadura handiko sare bat ere.

Beste puntu neutro bat ere badugu: **MAD-IX**, MADrid Internet eXchange-ren siglak. Irabazi-asmoa duen puntu neutroa izan arren, bere neutraltasunari eusten dio, eta ez du interferitzen bere bezeroek beste kide batzuekin ezarri nahi dituzten interkonezioetan. MAD-IX Madrilgo Centro de Datos de Interxion zentroan dago, eta horrek egiaztatzen du proiektua neutrala eta independentea dela. Izan ere, Interxion Europako buru da datu

independenteen eta neutralen zentroak kudeatzen, eta, gaur egun, azpiegitura teknologikoa ematen die Europako beste zazpi puntu neutrori (BNIX, Bruselan; COPIX, Kopenhagen; DE-CIX, Frankfurt; LINX, Londresen; SFINX, Parisen; SWISSIX, Zurichen; eta VIX, Vienan).

IXPren antzekoen artean, **JASO** sarea (JAurlaritzaren Sare Orokorra) nabarmendu behar da, sareen interkonexiorako modelo bat. JASOk ondoren aipatzen diren helburu hauek ditu: elkarrengarritasuna areagotzea, kostuak murriztea, aplikazioen inplantazioa erraztea eta eskalagarritasun handiko azpiegiturak integratzea. Hori dela eta, sare hauekin "konektatzen" da:

- ✓ "Administrazio Orokorreko Intranet Administratiboa" (SARA sarea)
- ✓ Sare sektorialak (Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Sare Korporatiboa –EJASK–, osasun-sarea, hezkuntza-sarea, sare judiziala, SPRI...)
- ✓ "Euskal Sarea" (Foru-aldundiek dute sare horretarako konexioa, eta horrenbestez, foru-aldundien mende dauden udalerriek ere bai)

BGP protokoloa eta segurtasun-arazoak

Internet diseinatu zen sistemen arteko komunikazioa errazteko, eta ez segurua izateko.

BGP *Border Gateway Protocol*-en akronimoa da (Muga-atebidearen protokoloa). Protokolo bat da, eta, haren bidez, bideraketari buruzko informazioa trukatzeko da sistema autonomoen artean, eta, aldi berean, begizta (*loops*) gabeko bideak hautatuko direla bermatzen da. Interneten bideak argitaratzeko protokolo nagusia da. Adibidez: Interneteko hornitzaileek beren bide-taulak trukatzeko dituzte protokolo horren bidez; hau da, bide-taulak mantentzen dituzte, helmuga jakin batera heltzeko biderik eraginkorrena aurkitzeko. Protokolo horrek, barne-*Gateway*¹¹ delakoek ez bezala, ez ditu erabiltzen metrikak, hala nola saltoen kopurua, banda-zabalera eta atzerapena. Hala ere, bideraketei buruzko erabakiak

hartzeko dituzte, sareko politiketan edo arauetan oinarrituz. Hau da arazoa: protokolo hori erabiltzen badugu, *man-in-the-middle* izeneko teknikaren bidez (hirugarren bat sartzea igorlearen eta hartzailearen artean), munduko edozein tokitan trafikoa desbidera dezakegu monitorizazioko estazio batera, ondoren (aurretik manipulatu edo manipulatu gabe) helmuga-estaziora bidaltzeko. BGP protokoloaren diseinu-arkitekturatik onura lortzen da. BGP protokoloa elkarrenganako konfiantzan oinarritzen da. Arazo hori arintzeko, SBGP (*Secure BGP*) esaten zaiona garatu da. SBGP delakoak hau eskatzen du: BGP bideratzaile edo *router*¹² bakoitzak bere bide argitaratu guztiak gako pribatu batez digitalki sinatzea. Arazoa da egungo bideratzaileek ez dutela sinadurak sortzeko eta balidatzeko ahalmenik, eta, horren ondorioz, *routerren* aldaketa masiboa egin beharko litzateke, eta, horien ordez, ahalmen hori duten beste batzuk jarri.



HIZTEGIA

¹¹ **Gateway**, atebidea: Gailu bat da, gehienetan ordenagailu bat, eta aukera ematen du protokolo eta arkitektura bera ez duten sareak konektatzeko, *router* batek ez bezala (ikus definizioa beheago). *Routerrek* konektatzen dituzte protokolo bera erabiltzen duten sareak.

¹² **Router**, bideratzailea: Hardware-gailu bat da, eta ordenagailuen sareak interkonektatzeko balio du. Sistema Irekien Interkonezioen erreferentzia-modeloaren (OSI) 3. geruzan operatzen du; hau da, sare-geruzan.



ALBOAN: Espedienteen kudeaketa



AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA
COMISIÓN JURÍDICA ASESORA
EUSKADI

"Aplikazioa .Net-en garatuta dago, baina haren ezaugarri nagusia da SharePoint erabiltzen duela *back-office-n*."

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa (COJUA siglez ere ezaguna) administrazio hauen goi-mailako kide anitzeko organo aholku-emailea da: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Tokiko Administrazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea eta aurreko administrazioei lotutako edo administrazio horien mendeko berezko nortasun juridikoa duten entitate publikoak.

- ✓ Berrikusteko errekurso administratibo bereziak.
- ✓ Kontratu administratiboen deuseztasuna, interpretazioa edo ebazpena, administrazio publikoen eta tokiko erregimeneko kontratazioari buruzko legearen arabera.
- ✓ Udal-barrutiak aldatzea, lurralde historiko bati baino gehiagori eragiten dionean.

ESKUMENAK

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak aholkuak ematen ditu autonomia hierarkiko eta funtzional osoarekin, bere objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridiko nagusien mende dauden organoei atxikita dago, baina Administrazioaren hierarkia-egitura integratu gabe.

COJUAn aholkuak eskatu behar dira, besteak beste, gai hauei buruz:

- ✓ **L e g e e n** aurreproiektuak eta legegintzako dekretuen proiektuak.
- ✓ Eusko Jaurlaritzak estatuko legeria garatzeko dituen autonomia-eskumenak erabiltzean ematen dituen arau-xedapenen proiektuak.
- ✓ Eusko Jaurlaritzaren arau-xedapenen proiektuak, Europar Batasuneko araudiak edo direktibak garatu edo aplikatzen dituztenak.

IRIZPENAK EGITEA

Esan bezala, Aholku Batzorde Juridikoak irizpen ugari egiten ditu urtean zehar, eta Batzordeko kide guztiek adostu behar dituzte irizpen horiek.

"COJUAK, aplikazio berri horren bidez, zerbitzuaren barruan jakintza partekatzea erraztu nahi du."

The screenshot shows the 'Comisión Jurídica Asesora' web application in Microsoft Internet Explorer. The interface includes a navigation menu on the left with categories like 'Nagusiak', 'Kanpoko gaiak', 'Gaiak', 'Barruko gaiak', 'Jazokerak', 'Gai - zerrenda', 'Nire atzak', 'Kontsulten bilaketa', 'Jakinarazpenak', and 'Linkak'. The main content area displays a process flow with six steps: 1. Alta, 2. Kalifikazioa, 3. Onarpena, 4. Tramitazioa, 5. Jazokerak, and 6. Behin betiko erabakia. Below the flow, there are sections for 'Jatorriaren datuak', 'Jakinarazpenaren datuak', and 'Gaiaren datuak', each with various input fields for text, dates, and dropdown menus. A 'Bilatu' button is visible in the 'Jatorriaren datuak' section.

Hori dela eta, bere garaian, zerbitzuko arduradunek egokitzen jo zuten irtenbide informatiko bat garatzea. Izan ere, aplikazio informatiko horrek euskarria emango lioke kudeatzen duten espediente bakoitzerako sortutako dokumentu guztien eguneroko kudeaketari.

Azkenik, COJUaren arduradunak ideia eta prototipoa zehazten aritu ziren 2007an eta 2008an. Garatutako aplikazioa .Net delakoan garatuta dago (aplikazio hori bilkuren deialdiei eta ondorioak hartzeari zuzendutako zatian oinarritzen da, Gobernu Kontseiluaren aplikazioan, P05), baina haren ezaugarri nagusia da **SharePoint** erabiltzen duela back-office delakoan; horretarako, *web-zerbitzuen* bidez lotzen diren zenbait “*azpigune*” erabiltzen ditu.

U78B izango da.

COJUaren Kabinete Teknikoak eskaneatuko ditu jasoko dituen dokumentu guztiak (**PDF** formatuan), eta ondoren, aplikazioan sartuko ditu.



SARBIDEAK ETA ERABILTZAILEAK

Era berean, COJUAK emandako irizpenen edo akordioen emaitzak Interneten argitaratzen jarraituko da, une honetan egiten den moduan (www.euskadi.net atarian).

Martxan den bitartean, guztira 15 pertsonak erabiliko dute aplikazio berri hori, eta denak Eusko Jaurlaritzako Administrazio Sare Korporatibokoak izango dira; hau da, barne-erabiltzaileak. Beraz, **SARgune**-ren bidez (aplikazioetara sartzeko zerbitzuaren bidez, lehen XLNets esaten zitzaionaren bidez) sartuko dira aplikazio horretara, edo,

erabiltzailea ez badago bere ohiko lantokian, VPN bidez (*Virtual Private Network*) sartu ahal izango da. Batzordeko kide guztiak erantzuteko asmoz, aplikazioak hainbat profil ditu: presidentea, bokala, idazkaria, abokatua, administraria eta administratzailea.

Erabiltzaile-profilak eta erabiltzaileen informatika-jakintzak askotarikoak direnez, aplikazioaren interfazea bereziki zaindu da, eta ahal den bisualena eta intuitiboena izaten saiatu dira. Logikoki, Batzorde Juridikoak kudeatzen dituen hiru kasuak jasoko ditu aplikazioak: kanpo- eta barne-arazoak, eta gertakariak.

Beste alderdi garrantzitsu bat da aplikazioa Eusko Jaurlaritzaren **Erregistro-liburuarekin** konektatuta dagoela, eta liburuak dagokion Sarrera/Irteera zenbakia esleitzen dio automatikoki.

Aplikazioak alderdi hauek ditu, besteak beste: epeen kontrola (egutegiak); erantsitako dokumentazioa; espedienteen kudeaketa osoa; posta elektronikoko bidezko komunikazio automatikoa; eta kontsultak, irizpenak eta txostenak egiteko beharrezkoak izan ohi diren datu-base juridikoetarako estekak.

Egun egiten ari diren proba guztiak bukatu ondoren, eta aurreko datu guztiak migratu eta gero, aplikazioa ekoizten hasiko dira datozen egunetan, eta haren barne-aplikaziorako kodea



Laburbilduz, aplikazio berri horren bidez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren barruan jakintza partekatzea erraztu nahi da. □

[info+]:

Aholku Batzorde Juridikoaren jardueraren arauak honako hauek dira:

II. Errepublikan behin-behineko euskal Gobernuako presidenteari emandako 1936ko urriaren 8ko Dekretua (EHAA 1. zk., 1936ko urriak 9)

1936ko urriaren 22ko Justizia eta Kultura sailburuaren Agindua (EHAA 15. zk., 1936ko urriak 23), hasieran Aholku Batzorde Juridikoa esaten zitzaiona osatuko zuten pertsonak izendatuko zituztena

Apirilaren 13ko 187/1999 Dekretuak (EHAA 71. zk., 1999ko apirilak 16) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzu juridikoen baitan sortu zuen Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoa

Eusko Legebiltzarrak azaroaren 24ko Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 9/2004 Legea onartu zuen (EHAA 238. zk., 2004ko abenduak 15)



36.zk.

2009ko abendua

LABURRAK!!

SARgune

Hemendik gutxira, **SARgune** Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiborako eta sareak ematen dituen zerbitzuetarako sarbide-sistema berria izango da. Haren helburua da segurtasuna eta kalitatea hobetzea, eta zerbitzu eta aplikazio horietarako sarbidea erraztea (posta elektronikoa, aplikazioak, sistemak...).

Pixkanaka hedatuko da (Sailka/eraikuntzaka) Sare Korporatiboaren postu guztietara. Bi pauso emango dira:

1. Lehen pausoa: **pasahitzen politikan aldaketak egitea**, pasahitzen kalitatea eta segurtasuna bermatzeko. Pauso horrek erabiltzaile guztiei eragingo die.
2. Bigarren pausoa: erabiltzaile guztientzako pasahitzen politika aldatu ondoren, **erabiltzaileen oraingo kodeak** (adibidez: *EJ12345X*) **berri izendatu beharko dira**, eta identifikadore berriak jarri beharko zaizkie (adibidez: *fmartine*).

Lehenengo bi pauso horiek eman ondoren, erabiltzaile bakoitzaren bezero-postuan tresna bat instalatuko da. Tresna horri esker, erabiltzaileak gardentasun osoz sartu ahal izango dira aplikazioetara eta zerbitzuetara, identifikazio-prozesu bakar baten bidez (teknikoki, *Single Sign-On* –SSO– deritzogu). Lehen fase horretan, zerbitzu hauek funtzionatuko dute tresna horren kontrolpean:

- *XLNet*, erabiltzaileak identifikatzeko zerbitzua
- Interneterako sarbidea

Ondoren, erabiltzaileak pasahitzen autozerbitzu-aplikazio baterako sarbidea izango du, eta, sarbide horri esker, ordenagailura sartzeko pasahitza ahaztuz gero, pasahitz berri bat ezarri ahal izango da aurretik konfiguratutako galdera-erronka multzo bati erantzun eta gero.

Prozesuaren bukaeran, erabiltzaileak pertsonan oinarritutako identifikatzaile bat izango du; hau da, beti **identifikatzaile** bera izango da (zer postu/lanpostu betetzen duen alde batera utzita), eta baimenak betetzen duen postuarekin lotuta egongo dira. Era berean, **postontzi elektronikoa** pertsonala izaten hasiko da, eta, horren ondorioz, erabiltzaileak postuz aldatzen badu ere, bere postontzi elektronikoa izaten jarraituko du.

Ezkutuko informazioa eta metadatuak


Azken boladan, asko hitz egiten da elkarrengarritasunari buruz (sistema heterogeneoek prozesuak edota datuak trukatzeko erraztasunaz), eta termino horrekin lotuta ageri da “web semantiko” terminoa ere (datuen weba). Azken termino hori “**metadatu**en” erabileran eta normalizazioan oinarritzen da (datuei buruzko datuak; datuen edukia, esanahia eta datuen arteko harremana deskribatzen dute).

Dokumentu ofimatiko batean hauek izan daitezke metadatuak, besteak beste: egilea, gaia, izenburua, enpresa, deskribapena, kategoria eta gako-hitzak.

Metadatu horiek datua kokatzen laguntzen dute, eta bilaketa-irizpide berriak eta errekurtsoen arteko harremana errazten dute. Horrenbestez, katalogazioa, berez, metadatuak sortzeko prozesu bat da. Metadatu horiek eskuz, erdiautomatikoki eta automatikoki sor daitezke. Arazoa da informazio osagarri hori (metadatuak) agian ez direla partekatu nahi errekurtsoa elektronikoki banatzen denean (testu-fitxategia, irudi-fitxategia...). Adibidez:

- ✓ 2003an Ingalaterrako Gobernuak txosten bat (*dodgy dossier*) argitaratu zuen. Txosten hartan agerian uzten zen Iraken suntsipen handiko armak zeudela. Dokumentu elektronikoa haren metadatuari esker, ordea, ohartu ziren txostena plagio bat zela, eta txostenaren egilea 13 urteko ikasle bat zela.
- ✓ Era berean, Interneten 100.000 dokumentu baino gehiago bildu zituen azterketa batek aditzera eman zuen dokumentuen erdiek baino gehiagok ezkutuko hitzak zituztela.

Gai horrekin lotuta, **Segurtasunaren Eskema Nazionalaren** zirriborroak **dokumentu-garbitzari** buruzko artikulua du: “(...) ezkutuko eremuetako informazio osagarri guztia (metadatuak, iruzkinak edo aurreko berrikusketak) kenduko da dokumentuetatik, informazio hori dokumentuaren hartzailearentzat egokia denean izan ezik. Neurri hori bereziki garrantzitsua da dokumentua asko hedatzen denean, hala nola dokumentua web-zerbitzari batean edo beste informazio-gordailu mota batean eskaintzen zaionean publikoari (...)” Beraz, kontuz argitaratzen ditugun dokumentu elektronikoekin!



SARgune

